

## Bestelako Xedapenak

### KULTURA SAILA

178

AGINDUA, 2010eko abenduaren 16koa, Kulturako sailburuarena, Donostia-San Sebastiánen (Gipuzkoa) den Munotxabal edo Muñozabal baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2010eko urriaren 7ko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpenaren bidez Donostia-San Sebastiánen den Munotxabal edo Muñozabal baserriak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hori 2010eko azaroaren 10eko 216. zk.a duen EHAAan argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikuluko horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Donostia-San Sebastiánen (Gipuzkoa) den Munotxabal edo Muñozabal baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

**Bigarrena.**– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako aipatutako Ondasunaren deskribapen formalagaita, agindu honen

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

178

ORDEN de 16 de diciembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Caserío Munotxabal o Muñozabal, sito en Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Caserío Munotxabal o Muñozabal, sito en Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 7 de octubre de 2010, publicada en BOPV n.º 216, de 10 de noviembre, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

**Primero.**– Inscribir el Caserío Munotxabal o Muñozabal, sito en Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

**Segundo.**– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en

II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorritz.

**Hirugarrena.**– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

**Laugarrena.**– Donostia-San Sebastiángo Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

**Bosgarrena.**– Espedienteko interesdunei, Donostia-San Sebastiángo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari Agindu hau jakinaraztea.

**Seigarrena.**– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Agindu hau argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

**Bigarrena.**– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, Agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 16a.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

#### I. ERANSKINA

Mugaketa.

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera eta ingurumaria hartzen ditu. Horrela, eremuak muga hauek ditu:

Ekialdean, baserriaren ekialdeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 40 metrora trazatua.

Hego-mendebaldean, baserriaren mendebaldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 30 metrora trazatua.

el anexo II de la presente Orden, a los efectos previstos en la Ley del Patrimonio Cultural Vasco.

**Tercero.**– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, según lo establecido en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

**Cuarto.**– Instar al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

**Quinto.**– Notificar la presente Orden a los interesados, al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

**Sexto.**– Publicar esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 2010.

La Consejera de Cultura,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

#### ANEXO I

Delimitación.

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites:

Al Sureste una línea paralela a la fachada del case-  
río trazada a 40 metros de distancia.

Al Suroeste una línea paralela a la fachada del ca-  
serío trazada a 30 metros de distancia.

Ipar-mendebaldean, baserriaren iparraldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 30 metrora trazatua.

Eta, azkenik, ipar-ekialdean, baserriaren iparraldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, fatxada horretatik 30 metrora trazatua.

#### b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatutako mugaketaren arrazoia da Munotxabal baserriaren inguruak duen balioa babestu behar dela, bai ingurumenaren ikuspegitik eta baita ikusteko duen balioa dela-eta. Baserria muino zabal batean kokatuta dago, ingurumenaren aldetik balio handiko muino batean, Donostiako Ibaeta auzuneko Igara aldean. Ingurunearen mugaketa beharrezkoa da katalogatutako ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko, eta baserriaren inguruko lurrak eta erai-kinerako sarbidea babestea du helburu, baserriaren berezko izaera gordetze aldera. Horregatik, mugaketak baserriaren eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere hartzen du.

## II. ERANSKINA

### Deskribapena.

Familia bakarreko baserria da, oinplano angeluzuzen txikia duena. Hiru solairu ditu: behekoa, lehendabizikoa eta ganbara labur bat. Bi isuriko estalkia dauka, eta gailurra, fatxada nagusiarekiko (hego-ekialdera begira) perpendikularra. Teilatu-hegalaren irteera oso txikia da. Hormak landu gabeko hareharritzkoak dira, eta bistan daude. Alde askotan, harri bitarteetan mortero karga handia ikusten da. Hareharritzko harlandu nabarmenak ditu ertzetan eta baorik gehienetan.

Fatxada nagusiak, hego-ekialdera begira, egitura simetrikoa dauka, eta erdian sarrera nagusia dauka, ateburu eta guzti. Sarrera horrek egurrezko ate lodi bat dauka, burdinaria eta burdinazko iltzeak dituena, bai eta behatxulo bat ere erdian. Sarrera horretako barea harlanduz inguratuta dago, eta behealdean ere harlandu bat dauka, karel gisa jarrita. Ipar-ekialdeko eta hego-mendebaldeko fatxadetan harlanduz inguratutako leiho-zuloak daude, eta fatxada bietan dago egurrezko atez itxitako sarrera bana. Ipar-mendebaldeko fatxada itsua da ia, leiho-zulo bakarra baitago.

Baserriaren barruko armadura eta dolarea zeharkako hiru habe luzetan bermatzen dira. Aurreko habeak dolarearen ardatz-zutabe nagusi bitan dago zurkaiztua. Hirugarrena atzeko horman bermatuta dago eta dolare barrokoaren bigarren ardatz-zutabe nagusiarekin mihizatuta dago. Bien artean dolare horren azpilari eusten diote. Ardatz-zutabe horietan, alboetan erantsitako eskuairak ikusten dira, aipatutako azpilari eusten dion aldea sendotzeko. Zutabe horietan bermatzen da estalkiaren egitura eta armadura, petral eta

Al Noroeste una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 30 metros de distancia.

Y, finalmente, al Noreste, una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 30 metros de distancia.

#### b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Munotxabal situado en una ancha loma de alto valor ambiental, en la zona de Igara del barrio de Ibaeta, de Donostia-San Sebastián. La delimitación del entorno, necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien inventariado, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y el acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello, esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.

## ANEXO II

### Descripción.

Caserío unifamiliar de pequeña planta rectangular. Consta de planta baja, primera y un corto desván. Tiene cubierta a dos aguas con la cumbrera perpendicular a la fachada principal de orientación SE. El alero no tiene apenas vuelo. Los muros son de mampostería de piedra arenisca y a la vista. En muchas zonas se aprecia una fuerte carga de mortero encajado en entrejuntas. Posee notables sillares de piedra arenisca en esquinales y en recerco de la mayor parte de los vanos.

La fachada principal SE es de composición simétrica con acceso central adintelado. Este acceso posee una gruesa puerta de madera con herrajes y clavos de hierro, con una mirilla central. El enmarcado de sillares de los vanos de dicho acceso está reforzado con un sillar debajo del que sirve de antepecho. Las fachadas NE y SW presentan huecos de ventana recercados de piedra sillar y ambos tienen un acceso cerrado con puerta de madera. En la fachada NW, casi ciega, se observa un único hueco de ventana.

La armadura interior y el lagar de este caserío se apoyan en tres largas vigas transversales. La viga delantera está apeada en un par de postes-ejes principales de lagar. La tercera se apoya en el muro trasero y está ensamblada con el segundo poste-eje principal del lagar barroco. Entre ambos sostienen la masera de dicho lagar. En los citados postes-ejes se observan escuadras adosadas lateralmente para reforzar la superficie de apoyo de la citada masera. En dichos postes se apoya la estructura y la armadura de la cubierta, que

gapirioz osatua. Bai gailurra bai alboetako petralak tirante kurbatuen gainean jarrita daude.

Beheko solairuan sukaldea eta biltegi bat daude, baita eskailera eta upategia eta ukuilua ere, irekita, eraikinaren barrenean. Azken horma-artearen forjatuaren altuera aurreko biena baino txikiagoa da. Lehenengo solairuan, aurreko horma-artean, logelak, ganbarara igotzeko eskailera eta goian aipatutako azpil zabala daude.

Munotxabal baserria XVIII. mende amaieraren eta XIX. mende hasieraren artean eraiki zuten, eta ez da aldatu eraiki zuten aldiko jatorrizko egitura.

está formada por correas y cabrios. Tanto la cumbreira como las correas laterales descansan sobre caballos o tirantes curvos.

La planta baja está ocupada por la cocina y un almacén, la escalera y la bodega y la cuadra, abiertos, al fondo de la edificación. La altura del forjado de la última crujía es menor que la de las dos delanteras. La planta primera está ocupada por los dormitorios en la crujía delantera, la escalera de acceso al desván y la amplia masera que ya hemos mencionado.

El caserío Munotxabal fue construido entre finales del siglo XVIII y comienzos del XIX, manteniendo invariable la estructura original de la época de su construcción.